



Arartekoaren 2014R-657-14 ebazpena, 2014ko urriaren 22koa. Horren bidez, Bakioko Udalari gomendatzen zaio eskatzen duten partikularrei osoko bilkurak grabatzeko baimena ematea.

Aurrekariak

1. (...) andreak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan, Bakioko Udalak ez baitzion utzi osoko bilkurak grabatzen.

Pertsona horrek adierazi du ez dagoela ados Alkatetzaren 2014ko martxoaren 26ko dekretuarekin. Dekretu horren bidez, ukatu egin zitzaion udalaren osoko bilkurak grabatzeko baimena.

Ebazpenak baimena ukatzeko arrazoa da ez dagoela legezko araudirik edo berariazko araurik, kide anitzeko udal organoen saioak grabatzeko aukerarik ezartzen duenik. Edonola ere, jurisprudentziaren harira, alkatearen ustez, grabatzeko tresnak erabiltzeko baimena edo debekua udal organoen polizia-ahalmenen eremuaren baitan sartzen da.

Zentzu horretan, ebazpenaren oinarri juridiko gisa, Auzitegi Gorenaren 1984ko azaroaren 8ko, 1990eko abenduaren 18ko eta 1998ko ekainaren 18ko epaiak aipatzen dira. Epai horiek guztiak osoko bilkurak garatzeko polizia-ahalei buruzkoak dira, eta ebazpenaren 88. artikuluan berariaz aipatzen dira Tokiko Erakundeen Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamenduko 1. eta 2. atalak.

2. Dokumentazio hori aztertu ondoren, 2014ko apirilaren 16ko idazkiaren bidez, informazioa eskatu genion Udalari, eta berariaz aipatu genuen erakunde honek jada gai hori aztertu zuela Gatikako Udalari antzeko arrazoi batengatik zuzendutako 2013ko martxoaren 6ko gomendioan. Une hartan, Bakioko alkatearen dekretuan azaldutako argudioaren antzekoa erabili zuen Gatikako Udalak. Hori dela eta, gure gogoetak eta aipatu gaiari buruzko gure gomendioa helarazten dizugu.
3. Bakioko Udalak, gure gogoetei eta aurretik bidalitako errekerimenduari erantzunez, izapidetutako espedientea igorri zigun, eta zehazki, Alkatetzaren dekretua, kexagilearen erreklamazioaren xede izan zena, eta udal idazkariaren 2014ko martxoaren 25eko txosten juridikoa. Txosten horrek ondorioztatzen zuen alkatetzaren eskumena zela, haren polizia-ahalen eta bilkura normaltasunez garatzeko ahalen baitan, osoko bilkuran grabatzeko tresnak erabiltzeko baimena ematea edo ukatzea. Txosten horretan aipatutako gogoetak eta jurisprudentzia Gatikako Udalaren osoko bilkurak grabatzeko baimena ukatzeko erabili zen oinarriaren berdin-berdinak dira, eta aipatu 2013ko martxoaren 13ko gomendioan ukatze haren aurka ere borroka egin genuen.



Udalari informazioa eskatzeko egindako eskaeran, berariaz argudiatu genuen baimena ukatzeko oinarritzat hartu zuten funts juridikoaren aurka, eta Udalak ez zien gogoeta horiei erantzun igorritako erantzunean.

Aurrekari horiek kontuan izanda, ebazpen hau egitea egokitzat jo dugu, hauen arabera:

Gogoetak

1. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak – TAOL– V. tituluari jasotzen ditu toki erakunde guztiei aplikatu beharreko xedapenak eta IV. kapituluari, zehazki, “Herritarrentzako informazioa eta horien parte-hartzea” aipatzen ditu (69.etik 72.era bitarteko artikulua). Artikulu horietan, biztanleek herriko jarduerari buruzko informazioa eskuratzeko duten eskubidearekin eta herrian parte hartzeko eskubidearekin erlazionatutako hainbat alderdi arautzen dira. Hala, bi gai horiek gurutzatu egiten dira, biztanleek udal kudeaketan parte hartzeko duten eskubideari hertsiki lotuta baitago toki jarduerari buruz jasotzen duten informazioa.

Horrela bada, 69.1. artikuluan zera xedatzen du:

“Toki-korporazioek ahalik eta informaziorik zabalena emango dute beren jarduerari buruz eta herriko kontuetan herritar guztien partaidetza bultzatuko dute.”

Bestalde, TAOLen 70.1 artikulua haxe dio:

“Toki-korporazioen osoko bilkurak jendaurrekoak dira. Hala ere, isilpekoak izan daitezke Konstituzioko 18.1 artikuluan aipatutako herritarren oinarritzako eskubideari eragin diezaioketen arazoei buruzko eztabaida eta bozketa, gehiengo osoak hala egiteko erabakia hartzen badu.”

Laburbilduz, azpimarratuko dugu osoko bilkuren publikotasuna herritar orok udalaren ordezkapeneko organo kolegiatu gorenean parte hartzeko duen eskubidearen adierazle bihurtzen dela edo, beste era batera esanda, herritarren informazio zuzenaren eta herritarrei gai publikoetan parte hartzeko aukera eskaintzen dien bidearen alderdi bikoitzean legeak eskaini duen oinarritzako tresna baten aurrean gaude. Zentzu horretan, azpimarratu beharra dago osoko bilkuren izaera publikoa lege batean xedatuta dagoela eta ez dago araudi baliokiderik herritarrek eskubide hori erabiltzeko duten modua zehazten edo mugatzen duenik.

2. Testuinguru horretan, Alkatetzaren 2014ko martxoaren 26ko dekretua aztertuko dugu, osoko bilkurak grabatzeko baimena ukatzen duena.



Udalaren ebazpenaren funtsezko oinarria 1998ko ekainaren 18ko Auzitegi Gorenaren Epaia da, EAEANren epaiaren aurka aurkeztutako apelazio errekurtsua ebazten duena. Epai honek udal apelatzailearen alegazioak bakarrik aztertzen ditu, izan ere, ez dira ez dira Salaren aurrean agertu ez zinegotzi auzi-jartzailea ezta bere talde politikoa ere. Auzitegiak kontuan hartzen duen alegazioa zera da:

“...siendo las primeras autoridades en el ente local dotado de autonomía el Alcalde y el Pleno del Ayuntamiento, debe reconocerse a estas autoridades una potestad de policía interna para ordenar el desarrollo de las sesiones del Pleno.”

Ondorioz, hirugarren oinarri juridikoan, Auzitegi Gorenak zera aipatzen du:

“De los razonamientos anteriores se deduce que a juicio de esta Sala permitir o prohibir el uso de grabadoras en las sesiones del Pleno entra dentro del ámbito de las potestades de policía del Alcalde y del propio Pleno respecto al desarrollo de las sesiones...”

.../...

“En el caso de autos se entiende que deben acogerse las alegaciones del Ayuntamiento y que en consecuencia hay que pronunciarse en el sentido de que el uso de las grabadoras no está contemplado en el artículo 88 del Reglamento de Organización y que la prohibición de dicho uso en el caso de autos tratándose de un pequeño municipio rural, con las relaciones de inmediatez existentes entre los vecinos no es contraria al ordenamiento jurídico.”

Epai hori berraztertze errekurtsua jaso zuen udal ebazpenak erabilitako argudio nagusia ere izan zen, epaitutako egitatearekin helburu antzekotasun handiagoa duena dela uste delako, Konstituzioaren 20. artikulua gaineko Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia kontuan hartu gabe, ezta erakunde honek aipatutako Auzitegi Gorenarena eta Valentziako Justizia Auzitegi Nagusiarena ere.

Argudio horren aurrean, lehenik eta behin esan beharra dago Auzitegi Gorenaren, aipatutako epaian, udal apelatzaileak egindako alegazioen inguruan mintzatzen dela, Udal horrek, Konstituzioaren 140. artikulua aitortzen duen toki erakundearen autonomia printzipioa aipatzen zuen. Epaiak eztabaidaren aldeko ebazpena ematen du alkateari eta Osoko Bilkurari bileren garapena antolatze eta, ondorioz, grabagailuen erabilera onartzeko edo ez onartzeko barne-poliziarren ahalmena aitortuz. Hala eta guztiz ere, epaiak eta bere arrazoibideek adierazitakoaren arabera, informazio-askatasunerako testuinguru orokorrean, Espainiako Konstituzioaren 20.1. artikulua babesean, barne-poliziarren ahalmen horren erabilerarako ahoz, idatziz edo kopiatzeko beste edozein bitartekoren bidez pentsamenduak, ideiak eta iritziak askatasunez adierazi eta



hedatzeko eskubidearekiko kontrasteak izan zitzakeen mugak ez ziren eztabaidagai izan.

Aipatu beharreko bigarren kontua da epaia zinegotzi batek eta bere talde politikoak erabili nahi duten eskubideen gainean azaltzen dela. Zinegotziek eta udaletako talde politikoek herritarrek ez dituzten jarduera eta parte-hartze bideak dauzkate udal jardueran. Gogoeta hauen lehen atalean aipatu dugun eta erreklamatzailerak eskatzen duen araudia da nola eta zer nolako mugekin erabil dezakeen informaziorako eta parte hartzeko eskubidea udalaren ordezkartza organo gorenean, hau da, osoko bilkuran, izaera publikoa duen horretan.

Azkenik, hurrengo atalean aztertuko dugun moduan, udalari helarazi genizkion gogoetetan aipatutako jurisprudentzia-doktrinak aipatutako 1998ko ekainaren 18koa baino geroagokoak dira eta horietan guztietan berariaz eztabaidatzen da zein muga edo murrizketa onargarriak diren informaziorako eskubidearen erabileran eta, zehazki, Konstituzioaren 20.1. d) artikulua aitortzen duenari jarraiki, edozein hedabideren bitartez egiazko informazioa emateko edo jasotzeko eskubidearen erabileran.

3. Udalari bere garaian jakinarazi genionaren arabera, Konstituzioaren 20. artikulua pentsamenduak, ideiak eta iritziak hitzez, idatziz nahiz beste edozein bidetatik askatasunez azaldu eta zabaltzeko eskubideak aitortu eta babesten ditu. Horrez gainera, adierazten du eskubide horien egikaritze ezin dela inolaz mugatu alde aurretiko zentsuraren bidez.

Konstituzio Auzitegiak, jurisprudentzia oinarrituan, manu hori honela interpretatu du: 20. artikuluko askatasunak ez dira bakarrik **herritar bakoitzaren funtsezko eskubideak, oinarrizko erakunde politiko baten, hau da, iritzi publiko librearen aitortpena eta bermea** ere baitira. Hori, modu bereizezinean, pluralismo politikoari lotuta dago, estatu demokratikoaren funtzionamenduaren nahitaezko balioa eta baldintza baita (1990eko otsailaren 15eko 20/1990 KAE).

Bestalde, horrez gain, une honetan 2005eko ekainaren 20ko 159/2005 Konstituzio Auzitegiaren epaia mahaigaineratzen dugu, Konstituzioaren 20.1.d) artikulua urratu izanagatik, prentsa elkarte batek funtzionarioei, ikusleei eta informazioko profesionalei Auzitegi Nazionalaren eraikinetara irudia hartzeko kamerak eramanez sartzea debekatzen zien erabakiaren aurka aurkeztutako babes-errekurtoa azaltzen duena. Aurkaratutako akordioak jurisdikzio-organoetako magistratu titularrei ahamena eskaintzen zien kasu bakoitzean epaiketa-aretoetara sartzen uzteko. Horrela bada, Konstituzio Auzitegiak, laugarren oinarrian, 56/2004 eta 57/2004 Konstituzio Auzitegiaren Epaietan adierazitakoaren inguruan, zera adierazi zuen:

«Pues bien, ha de entenderse que este régimen de prohibición general con reserva de autorización es incompatible con la normativa reguladora del



ejercicio del derecho fundamental a la libertad de información actualmente vigente, que establece, conforme a lo que ya se ha expuesto, precisamente, una habilitación general con reserva de prohibición. A la ley está reservada la regulación de las excepciones a la publicidad del proceso (SSTC96/1987, de 10 de junio, FJ 2; y 65/1992, de 29 de abril, FJ 2), que son, al mismo tiempo, para las actuaciones que se pueden celebrar en régimen de audiencia pública, límites de la libertad de información (ATC 195/1991, de 26 de junio, FJ 6). Mientras el legislador, de acuerdo con las exigencias del principio de proporcionalidad y de la ponderación, no limite con carácter general esta forma de ejercicio de la libertad de información, su prohibición o limitación en cada caso forman parte de la competencia que la Ley Orgánica del Poder Judicial y las distintas leyes procesales atribuyen a los Jueces y Tribunales para decidir sobre la limitación o exclusión de la publicidad de los juicios, competencia ésta que ha de ser también ejercida conforme al principio de proporcionalidad», concluyendo que «[n]o es compatible, pues, con la actual legislación reguladora del ejercicio de la libertad de información (art. 20.4 CE) el establecimiento de una prohibición general con reserva de autorización en cada caso del acceso de medios de captación y difusión de imágenes a las audiencias públicas, porque la utilización de tales medios forma parte del ámbito constitucionalmente protegido por el derecho a la libertad de información que no ha sido limitado con carácter general por el legislador. La eventual limitación o prohibición de tal utilización, inicialmente permitida, ha de realizarse de forma expresa en cada caso por el órgano judicial conforme a las exigencias a las que acaba de hacerse referencia» (ibidem).”

Aipatutako konstituzio jurisprudentziaren bidez zera ondorioztatzen da:

- Entzunaldi publikoetan irudiak hartzeko eta hedatzeko bitartekoak erabiltzea informazio askatasunerako eskubideak konstituzioaren bidez babestutako esparruaren parte da.
- Informazio askatasunerako oinarritzko eskubide horren erabilera ezin da orokorrean mugatu.
- Legea da entzunaldi publikoaren publikotasuna mugatu dezakeen bakarra, informazio askatasunaren murrizketak izanagatik.
- Entzunaldi publiko baten publikotasuna murrizteko eskumena, kasu zehatz bakoitzean, jazotako baldintzak kontuan hartuta, proportzionaltasun printzipioaren arabera erabili behar da.

Konstituzio doktrina hori, gure ustez, arazorik gabe bideratu daiteke udal organoetara eta, are gehiago, ondoren aipatuko dugun Auzitegi Gorenaren epaian azaltzen da. Ondorio gisa aipatuko dugu ez dela aipatutako konstituzioaren printzipioen arabera barne-poliziaren eskumena duten organoek orokorrean bilera publikoetara irudiak hartzeko eta hedatzeko bitartekoekin sartzea murriztu edo debekatzea, Legean ez baitago halako murrizketarik. Osoko Bilkuraren mahaiburutzak duen barne-poliziaren



eskumenaren erabilerak, osoko bilkura batean jazotako gertaerei jarraiki, neurritasun eta motibazio egokiarekin, neurri murriztaileren bat har zezakeen betiere muga horren helburu nagusia osoko bilkuraren garapen arrunta bermatzea izanez gero.

Zentzu berean, 2007ko maiatzaren 11ko Auzitegi Gorenaren Epaiak Pilar de la Horadadako Udalak aurkeztutako kasazio-errekurtsoa gaitzetsi zuen eta enpresa auzi-jartzaileak udaleko osoko bilkurak baldintza berdinetan grabatzeko zuen eskubidea onartu zuen, udalak bideo grabaketa eta ikus-entzunezko seinalearen hedapena udal zerbitzuen eskura soilik utzi nahi zuen arren. Horrela bada, zuzenbideko lehen oinarrian, instantziaren epaiaren argudioari buruz, zera aipatzen da:

“La limitación del acceso a la información de las actuaciones administrativas tiene serias limitaciones –tanto en el nivel constitucional como legal- sobre la base, fundamentalmente, de los derechos individuales de los ciudadanos afectados por el expediente administrativo y por la legislación sobre secretos oficiales; sin embargo, las sesiones plenarias de los Ayuntamientos son públicas y -salvo en casos puntuales en los que, en aplicación de las limitaciones citadas, pudieran declararse formal y motivadamente reservadas- no hay restricción alguna al derecho de la ciudadanía a su directo e inmediato (sic).

De entre esos medios de acceso de la ciudadanía destacan iniciativas como la de la mercantil demandante de permitir la emisión televisiva de la sesión plenaria, pues implica tanto como la presencia en el pleno de la totalidad de los vecinos que tuvieran interés en ello y que -por las naturales limitaciones de espacio- no podrían normalmente acceder a ello.

La limitación del acceso de las cámaras -la cual no se funda por la Administración en razones de concurrencia de múltiples medios de comunicación que hiciera imposible el acceso de todos por razones físicas y que obligara a la supeditación a un sistema de acreditaciones o de puesta en común de la toma de imágenes- implica una suerte de censura previa de la obtención de la información, privando de esta manera no solo al medio de comunicación demandante de su derecho fundamental, sino obstando también el derecho a la información de los vecinos.

No puede perderse -en este punto- la perspectiva de que el ejercicio de los derechos de información y participación de los ciudadanos en el ámbito político y administrativo se funda -en un extremo esencial- en la libertad de información y que ella se actúa primordialmente a través de los medios de comunicación independientes y no administrativizados, por lo que cualquier género de limitación o censura en la obtención de la información -cual es el caso- se convierte en una conculcación de los principios informadores de estas libertades, esenciales para el funcionamiento del sistema constitucional democrático, y en particular (y en lo que a éste proceso



hace, pues en él debe de resolverse la demanda de la mercantil actora) de los derechos fundamentales de los informadores, garantes en definitiva de ese sistema.”

Epai horri aurre egiteko (gure ustez, kexagileak planteatutako gaia balioesteko erabakigarria da epai hori), udalak kexagileari hitzordua eman eta aintzat zergatik hartzen ez duen arrazoitu gabe utzi ondoren, ondorioztatu zuen alkatearen eskumeneko eta osoko bilkuraren baitako ahal baten egikaritzea dela, polizia-ahalen baitan.

Hala eta guztiz ere, kontua da udalak ezin duela murriztu Legeak egiten ez duen lekuan eta, hedapenezko funtzio hori **"lehentasunez"** komunikabideek burutzen ohi duten arren, ezerk ez du eragozten informazioaren eskuratzea osoko bilkura grabatzea erabakitzen duen herritar batek burutu ahal izatea eta, are gutxiago gaur egun, informazioaren hedapena askoren eskura dagoenean. Gure ustez, ezin da egin oinarritzko arauan oinarririk ez duen interpretazio murriztailerik, Konstituzioaren 20.1.d) artikulua ez dituelako komunikabideen eskubideak aipatzen, herritarrek hedapenezko edozein bitartekoren bidez komunikatzeko edo egiazko informazioa askatasunez jasotzeko dituzten eskubideak baizik.

Azkenik, maila baxuagoko instantzia den arren, oso interesgarritzat jotzen dugu, aipatutako guztiaren laburpen gisa eta dagoeneko azertu dugun jurisprudenzia-doktrina aplikatuz, 2009ko urtarrilaren 27ko Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia aipatzea. Bertan ondorioztatzen da alkatearen erabakia, osoko bilkuraren grabaketa debekatuz, zuzenbide osoz deuseza dela Konstituzioaren 20.1.d) artikuluan onartutako oinarritzko eskubidea urratzeagatik. Horrela, zuzenbideko oinarrietako laugarrenean honakoa aipatzen da:

“Estos elementos mutatis mutandis son perfectamente extensibles al caso de autos, en la medida en que:

a).- La negativa del Alcalde, carece de toda razonabilidad, y está absolutamente inmotivada porque no se ha producido ninguna alteración del orden público, que merezca ser restaurado para el desarrollo de la sesión.

b).- Quienes pretendían la grabación eran perfectamente conocidos por el Sr. Alcalde, en la medida en que formaban parte de una asociación con la que el ayuntamiento había suscrito un convenio, y en diversas ocasiones había solicitado la grabación de los plenos, lo que le había sido sistemáticamente negado.

c).- La publicidad de las sesiones del Pleno, implica en esencia que, cualquier ciudadano, pueda conocer pormenorizadamente todo cuanto en un pleno municipal acontece.

d).- La transmisión de información en nuestra sociedad no esta restringida ni mucho menos solo, a quienes sean periodistas, de manera que, cualquier



ciudadano puede informar, trasladar datos, por cualquiera de los medios técnicos que permiten su tratamiento y archivo, y por supuesto, cualquiera puede mostrar su opinión respecto de los datos que trasmite.

e).- La función de policía del pleno no quiere decir que pueda prohibirse cualquier grabación, sino solo aquellas que manifiestamente impliquen una alteración del orden, que impida el desarrollo de la sesión, y solo en el momento en que, a resultas de dicha grabación devenga imposible la continuación de la misma. Circunstancias estas difícilmente producibles, si el que graba simplemente se limita a grabar.

f).- Los poderes públicos en democracia se caracterizan por su coherencia, y su transparencia; lo primero implica racionalidad; y lo segundo, que sus decisiones no solo pueden, sino que deben ser conocidas por todos los ciudadanos.

Así las cosas, la sala debe concluir que la decisión del Alcalde, prohibiendo la grabación del pleno, es nula de pleno derecho por violar el derecho fundamental reconocido en el artº 20.1 .d de la Constitución”.

4. Bestalde, udal idazkariaren txostenak 15/1999 Legea, abenduaren 13koa, datu pertsonalak babesteari buruzkoa, ere aipatzen du. Zehazki, Datuen Babeserako Agentziaren 198/2007 irizpenak (AAPP/00090/2006 zenbakiko prozeduran eman zen) hau aipatzen du osoko bilkuren publikotasunari buruz: *“Además, el hecho de que el Pleno Municipal tenga el carácter de público, no implica que la información objeto de debate en dicho Pleno pueda ser divulgada por cualquiera de los asistentes al mismo, y menos aún, por aquellas personas que, por su condición de miembros del Pleno, tienen obligación de guardar secreto por razón de su cargo, como ocurre en el presente caso, con el “Cargo 1”.*

Beharrezkoa da idazkariak bere txostenean adierazitakoaren aurreko paragrafoa sartzea, azpimarratuta dagoen baiepen hau testuinguruan sartzeko:

“Respecto a la alegación formulada por el Ayuntamiento, relativa a que “datos no se contiene en ningún fichero del Ayuntamiento ni han sido obtenidos por este Ayuntamiento para fin alguno, sino que fueron facilitados por el citado tribunal con el fin de que el Ayuntamiento los contestara, formando parte de su expediente administrativo, haciéndose públicos a través de las sesiones del Pleno que resultan ser públicas por así disponerlo las legislación de régimen local”, se debe señalar que ha quedado acreditado que los datos fueron difundidos sin consentimiento de los afectados, en la entrevista radiofónica de fecha DD/MM/AAAA, figuran registrados en un fichero automatizado cuyo responsable es el citado Ayuntamiento y se encuentran amparados por el deber se(sic) secreto.”

Hori dela eta, Agentziak hau ondorioztatzen du:



“El Ayuntamiento de la Villa de Pitillas ha vulnerado el deber de secreto al difundir a terceros, sin consentimiento de los afectados, a través del “Cargo 1” de la localidad, información sujeta al deber de secreto contenida en el fichero denominado “Registro de Entrada” cuyo responsable es el propio Ayuntamiento.”

Testuinguru horretan esaten du Agentziak eztabaidagai den informazioa hedatzeko mugak egon daitezkeela. Eta horri gehitu behar diogu, hain zuzen ere, eskubide bakar bat ere ez dela mugagabea, baina kasu bakoitzean tartean sartuta dauden eskubideak ebaluatzea beharrezkoa dela, zehazteko zergatik duen eskubide batek babestua izateko duintasun handiagoa indargabetua izan behar den beste eskubide bat baino.

Horrenbestez, Agentzia aztertzen ari da ea kargu publikoak sekretua gordetzeko eginbeharrari lotutako fitxategi batean jasotako hirugarrenen datuak irratiko elkarrizketa batean heda ditzakeen, datu horiek osoko bilkura publiko batean ezagutzera eman ziren arren.

Hala ere, Agentziak eman du aztertzen ari garen gaiari buruzko iritzia. Hala, 0389/2009 eta 0526/2009 txostenetan (bere udaleko osoko bilkuretan soinu-grabaketak egin eta bere web-orriaren bidez hedatzen dituen partikular bati buruzkoa; eta osoko bilkurak grabatu, eta web orriari hedatu eta biltegiatu nahi dituen udal bati buruzkoa, hurrenez hurren) aztertzen ari garen gaia ebazten dute.

Bi txostenetan ondorioztatu zen ez zela beharrezkoa kaltetuaren baimena izatea, jakinarazpena lege mailako arau baten babesean dagoenean (Lege organikoaren 11.2.a) artikulua). Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.1. artikulua, osoko bilkurak publikoak direla zehazten duenean, ematea babesten du. Horrenbestez, grabaketa debekatzea onargarria izango litzateke, baldin eta Korporazioak erabakiko balu zenbait gairen eztabaida eta botazioa sekretutzat jotzeko salbuespena aplikatzea, gehiengo osoz erabakitzen duenean, gai horiek eztabaidatzea eta bozkatzea herritarren oinarrizko eskubidea kalte dezakeelako. Konstituzioaren 18.1. artikulua aitortzen du eskubide hori.

5. Azkenik, egokitzat jotzen dugu ebazpen honetan hizpidera ekartzea 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa¹. Lege horren helburua da jarduera publikoaren gardentasuna zabaltzea eta indartzea, eta eskura dagoen informaziorako sarbidea izateko eskubidea bermatzea (1. artikulua). Zentzu horretan, informaziorako sarbidea izateko eskubidearen mugen aplikazioa (kasu honetan, ondoren hedatzeko) justifikatu egin behar da, eta babestu behar den objektuaren eta helburuaren arabera izan behar da. Hori dela eta, egoera

¹ Nahiz eta tokiko erakundeek 2015eko abenduaren 11ra arte izan egokitzeko epea, hori ez da oztopo haren printzipioak eta xedapenak aldeztatik aintzat hartzeko.



bakoitzean, egiaztatu behar da maila goreneko interes publikoak edo pribatuak daudelako ezartzen direla muga horiek (14.2. artikulua).

Udalaren argudioen arabera, bertaratutakoek grabatzeko gailuak erabiltzen badituzte bilkuraren ohiko garapena oztopatu daiteke eta korporazioko kideen adierazteko askatasuna mugatu daiteke (euren esku-hartzeak grabatuko direla dakitelako), are gehiago, dentsitate txikiko udalerrri batean, herritarren arteko harremanak etengabeak baitira.

Egungo testuinguruan, legebiltzarreko talde politiko guztiek une oro aditzera ematen dute jarduera publikoaren gardentasuna handitu eta sendotu behar dela eta garatzen duten jarduera gehiago zabaldu behar dela herritarrek horren berri eduki dezaten. Zentzu horretan, udalbatza grabatzeak eta ondoren zabaltzeak zinegotzien adierazteko askatasuna mugatuko duela dioen argudioa oso kontraesankorra da, ezin baitugu ahaztu udalbatza publikoa dela.

Beraz, pertsonak norberaren izenean eta/edo hedatze horretan antolatutako gizarte-eragileen parte-hartze edo laguntza errazteaz gain, txalotua izan beharko litzateke, udal ordezkaritza organo nagusiaren lana ikusgai egiteko laguntza handia ematen baitute.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Interesdunari udalaren osoko bilkurak grabatzeko baimena ematea.